



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

ELKARTEAZ ORO HAR

IZENA

1. artikulua.

1978ko uztailaren 28an inskribaturiko eta Erregistro zenbakia AS.R.P.G.00988 duen irabazi asmorik gabeko Donostiako UZEI (**Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea**) Elkartearen Estatutuak 2021eko abenduaren 2an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean aldatu eta gaurkotu egin dira ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko Elkarteeri buruzkoan, eta martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan, Elkartzeko Eskubidea arautzekoan, ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkarte horrek honako araubide hau izango du: aipatutako elkarten legeak, estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken horiek osagarri besterik ez dira izango).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.

Honako hauek dira Elkartearen helburuak:

- Batik bat I+G+b jarduerak garatzea, ezagutza zientifikoa eta teknologikoa sortzeko, batez ere hizkuntza-ingeniaritzaren arloan.
- Euskararekin zerikusia duten hiztegi eta lan terminologiko eta lexikografikoak egitea.
- Kulturatik eta goi-mailako zientzietatik sortzen diren, eta etorkizunean sortuko diren, premietara euskara moldatu eta egokitu ahal izateko lankidetzan aritzea.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T3GR5-2624 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T3GR5-2624 en la sede electronica <https://euskadi.eus/localizador>



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

- Euskararen barnean, xede berezietako hizkeren finkapena eta hedapena sustatzea.
- Euskal Herriko proiektu terminologikoen aholkularitza eta koordinazioa egitea.
- Euskararen normalizazio linguistikoaren alde lan egitea, hizkuntzaren erabilerarekin zerikusia duten balio erantsiko zerbitzuak eskainiz.
- Euskal lexikoaren eboluzio zehatza etengabe aztertzea.
- Euskararen ikerketa, normalizazio eta hedapenean diharduten erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.
- Teknologia berrietan oinarrituz, Hizkuntza Naturala prozesatzeko eta, bereziki, euskararako aplikazio eta produktu informatikoak garatzea.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea.

Aipatutako helburuak betetzeko, honako jarduera hauek burutuko dira:

- Hiztegi tekniko eleaniztunak egiteko irizpide lexikografiko eta terminologikoak finkatu.
- Zientzien eta teknikaren arlo desberdinetako bokabulario eta hiztegi berezituak egin eta argitaratu.
- Datu-banku terminologiko bat antolatu eta mantendu.
- Datu-base lexikografiko bat antolatu eta mantendu.
- Terminologia eta lexikografiako ikastaroak antolatu eta eman.
- Egungo euskararen lexikoaren corpora bildu eta ikertu.
- Hizkuntza naturala prozesatzeko proiektuetan parte hartu.
- Lexikografia eta terminologiari buruzko kongresu eta jardunaldietan parte hartu.
- Hizkuntzalaritzari aplikatutako ikerketa-lerro desberdinen baitan difusio-sistema modernoak bultzatu, informatika eta telekomunikazioen arloko teknologia berriak baliatuz.
- Kontsulta telematikoaren zerbitzu bat sortu eta mantendu.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

- Euskararen moldatze-lanak burutu, bai bertan testu originalak sortuz eta baita ere beste hizkuntzetan sortutako testuak itzuliz.
- Bekadunak trebatu eta ikerketa proiektuetan sartzeko aukera eman.

Aurreko apartatuan azaldutako eginkizunen kalterik gabe, Elkartek, bere helburuak betetzeko, beste hauek ere egin ahal izango ditu:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak burutzea.
- Edozein eratako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.
- Legeen eta bere Estatutuen arabera era guztietako akzioak egikaritzea.
- Informazioaren kudeaketarako tresna eta baliabide informatikoak garatzea.
- Aplikazio informatikoak garatu eta mantentzea.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.

Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da: Kalea: Aldapeta; zk.: 20; Herria: Donostia.

Elkartek beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.

Elkarte honen jarduera nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan burutuko da, baina heda daiteke bere jarduera-eremua, kasu bakoitzak eskatzen dituen betebeharrak administratibo zehatzak bete ondoren, gainerako lurralde espainolera eta handik kanpora ere, atzerriko eta nazioarteko erakundeekin elkartuz edo federatuz.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

Iraupena eta Izaera demokratikoa

5. artikulua.

UZEI izeneko Elkartea betiko eratzen da. Elkartea, Ezohiko Batzar Orokorraren erabaki bidez desegin ahal izango da soilik, VI. kapituluan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Elkartearen barne-eraketa eta barne-funtzionamendua demokratikoak izango dira.

BIGARREN KAPITULUA

ZUZENDARITZAKO ETA ADMINISTRAZIOKO ORGANOAK

6. artikulua.

Elkartearen Zuzendaritzaren eta administrazioaren arduradunak kide anitzeko organo hauek izango dira:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo goren gisa.
- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkor gisa.

Batzar Orokorra

7. artikulua.

Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko da bazkideen borondatea. Ohiko bilerak eta ezohiko bilerak egingo ditu.

8. artikulua.

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desagitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainerako kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organismoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.

Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: bigarren hiruhilekoan izango da, 8. artikuluko a), b) eta c) apartatuetan zehaztutako erabakiak hartze aldera.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

10. artikulua.

Aurreko artikuluan adierazitakoaren kalterik gabe, Batzar Orokorrak ondorengo gaiei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena du:

- a. Estatutuak aldatzea, hurrengo artikuluan jasotakoaren arabera.
- b. Zuzendaritza Batzordea aukeratzea.
- c. Elkartea desegitea, hala badagokio.
- d. Beste Elkarre batzuekin Federazioa edo Konfederazioa osatzea edo horietakoren batetik ateratzea.

11. artikulua.

Batzar Orokorrak hala erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere kabuz edota bazkideen laurdenak hala eskatuta, hartarako arrazoiak eta helburuak azalduz. Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko egingo da bilera hau:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkarre desegiteko.

12. artikulua

Batzar Orokorrarako deiak, ohikoak nahiz ezohikoak, idatziz egin beharko dira, eta bilera-tokia, eguna, ordua eta Aztergaien Zerrenda zehatuko dira. Deia egiten den egunetik Batzarra lehenengo aldiz egingo den egunera bitarteko epea gutxienez 15 egunekoa izango da. Batzarrerako bigarren deia egitea egokituko balitz, egingo diren bi batzarren artean gutxienez ordu-erdi bat igaro beharko du.

Iragarkian ez balego jasota 2. Deialdi-eguna, batzar-eguna baino 5 egun lehenago azaldu beharko da noiz izango den.

13. artikulua.

Batzar Orokorrak, bai ohikoak eta bai ezohikoak, lehenengo deialdian baliozkotasunez eratuta gelditzeko, bazkideen erdiak baino gehiagok bertaratu behar dute, norbera joanez edo ordezkatuta. 2. deialdian, berriz, edozein delarik ere bertaratutako bazkideen kopurua.

Bazkideek, beste edozein bazkideri eman diezaiokete beren ordezkaritza Batzar Orokorratan parte hartzeko. Eskuorde hori, idatziz egin behar da eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino ordubete lehenago. Elkarrearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek postaz bidal dezakete ordezkaritza beste baten esku uzten dela adierazten duen agiria.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

14. artikulua.

Batzar Orokorraren erabakiak boto-gehiengoz hartuko dira.

Zuzendaritza Batzordea

15. artikulua.

Zuzendaritza Batzordearen osagaiak izango dira Lehendakaria, Lehendakariordea, Idazkaria, Diruzaina eta bokalak. Zuzendaritza Batzordeak gutxienez zortzi eta gehienez hamabi kide izango ditu. Bokalak gehienez zortzi izango dira. Gutxienez hiru hilabetetik behin bilduko dira, eta Elkartearen jarduera bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonen, gutxienez, % 40 emakumezkoak izango dira.

16. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo tarteka 5 aldiz ez bada joaten, daukan kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen behintzat.

17. artikulua.

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek 3 urtetarako izango dira, Batzordeak errebokatu ezean, eta behin eta berriro mugarik gabe hautatu ahal izango dira. Kargu horiek guztiak berrituko dira.

18. artikulua.

Zuzendaritza Batzordekoa izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.

b) Elkarteko bazkide izatea.

c) Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, eta eskubide zibilen erabilera osoa izatea.

19. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeko kide-kargua, Batzar Orokorrak izendatu ondoren, hura onartzean edo haren jabe egitean hartuko da. Karguaren onarpena borondatezkoa izango da.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

Karguak ordainik gabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak erabaki dezake dietak eta gastuak ordaintzea.

20. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dute beren kargua:

- a) Agintaldia betetakoan.
- b) Dimititzean.
- c) Bazkide izateari uztean, edo izateko ezintasunak sortzen direnean.
- d) Batzar Orokorrak errebokatuz gero, Estatutu hauetako 16. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- e) Hiltzean.

Kargua uztearen arrazoia a) puntuan esandakoa baldin bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren karguan jarraitu beharko dute hurrengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza Batzordeak berak izendatuko du hutsik gelditutako kargurako behin-behineko kidea eta Batzar Orokorrak erabakiko du gero izendapena onartu ala ez. Ezezkoa bada, dagokion izendapena egingo da.

Batzorde honen osaeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

21. artikulua.

Zuzendaritza Batzordearen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren gidalerroen arabera eta bere esanetara.
- b) Elkartek aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari, onar dezan, aurkeztea.
- d) Batzar Orokorraren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta ohiko Batzar Orokorraren eta ezohikoen deialdiak erabakitzea.
- e) Zuzendari-Gerente bat izendatzea, berari emanaz aginduta dagoen eskuordea, dauzkan ahalmenak bertan zehaztuz. Zuzendari-gerenteak parte



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

hartuko du, bozarekin baina botorik gabe, Zuzendaritza Batzordearen bileretan, salbu Batzar Orokorrak izendatua izaten denean, orduan boza eta botoa izango dituelarik.

Bakar-bakarrik bazkideak izan ahal dira Zuzendaritza Batzordeko kideak Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera, 17.3. artikuluan.

f) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.

g) Batzar Orokorrak berariaz izendatuta ez duen beste edozein eginkizun.

22. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeak, lehendakariak eta, hala balegokio, lehendakariordeak, erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, beren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileretako buru lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, Batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekide kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu. Akta horiek dagokien Liburuan jasoko dira idatziz.

Zuzendaritza Batzordeko kideak

Lehendakaria

23. artikulua.

Lehendakariak Elkartearen legezko ordezkaritza hartzen du bere gain. Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean aipaturiko bi organo horien buru izango da.

24. artikulua.

Zuzendaritza Batzordeari edo Batzar Orokorrari oso-osoan ez dagozkien aginpideak ere lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:

a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean eta bai bestean sortzen diren



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoarekin erabakia hartzea.

b) Elkaratearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, Aldi berean, elkaratearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.

c) Baliozkotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.

d) Sor daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak bilatzea, betiere Zuzendaritza Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri emanez.

Lehendakariordea

25. artikulua.

Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta honek aldi baterako ezintasun duenean berau ordezkatzuko du. Era berean, lehendakariak berariaz emandako ahalmen guztiak izango ditu.

Idazkaria

26. artikulua.

Idazkariari dagokio, zehazki, elkaratean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen erregistro-liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintza eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkarateen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezen arduratuko da, Erakundearen dokumentu ofizialak zainduz, Elkaratearen liburu eta dokumentuen edukia egiaztatuz Zuzendaritza Batzordearen hautaketari eta elkarate-egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinarazpenak dagokion agintaritzari bideratuz.

Diruzaina

27. artikulua.

Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari aurkeztuko dizkio, onar ditzan.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

Bokalak

28. artikulua.

Bokalek beren karguei datxezkien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARPEN-BIDEAK ETA MAILAK

29. artikulua.

Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona eta entitate juridiko guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- a. Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.
- b. Sarrera eskatzea.
- c. Estatutuak onartzea.
- d. Sarrera-kuota ordaintzea.
- e. Pertsona juridikoen kasuan, organo eskudunaren berariazko erabakia behar da. Erabaki horretan adieraziko da elkarteko bazkide izateko borondatea eta zein izango diren pertsona juridikoaren ordezkariak

Bazkideak izan daitezke ohorezkoak, arruntak eta babesleak.

30. artikulua.

Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta lehendakariari zuzenduko zaio. Lehendakariak horren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari eta hark erabakiko du eskabidea egin duena Elkartean onartu ala ez. Dena den, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu izango zaio Batzar Orokorrari.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

31. artikulua.

Batzar Orokorren erabakiz, Elkartek Ohorezko Bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkarteren helburuak betetzeko bertaratu ezineko lagunak.

Bazkide horiek ohorezko izaera dute, eta beraz ez dira legezko bazkide, ez dute Elkarteko Zuzendaritza eta Administrazioarako organoetan parte hartzeko eskubiderik ez eta inongo betebeharririk ere.

Bazkide arruntek, bazkide kuota ordainduz gero, estatu hauetan azaltzen diren eskubide eta obligazioa guztiak dituzte.

Bazkide babesleek, Zuzendaritza Batzordeak izaera horrekin onartzen dituen pertsona juridikoak edo fisikoak dira. Bazkide babesleek kuota berezi bat ordaintzen dute eta, kasuaren arabera, Zuzendaritza Batzordeak onartzen dituen onura bereziak izango dituzte.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

32. artikulua.

Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- a. Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- b. Elkarteko gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaera, elkarteren kontu-egoera eta elkarteren jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- c. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarteren ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- d. Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- e. Elkarteren Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoen parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

- f. Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- g. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- h. Elkartearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- i. Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- j. Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.
- k. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.

33. artikulua.

Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a. Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d. Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliozkotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

ZIGOR-ERREGIMENA



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

34. artikulua.

Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik Elkartetik betiko kanporatzerainokoa izan daiteke zigorra, betiere 35.etik 38.era bitarteko artikuluen arabera, biak barne.

Horretarako, lehendakariak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeke erabakia hartu ahal izango du. Azterketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurri egokiak proposatuz. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik arazoa dagokionak adierazitakoa kontuan hartu beharko da.

Aipatu erabakiaren aurka -betiere arrazoiak emanaz egina izango dena- Batzar Orokorrera jotzerik izango da, 32.a) artikuluan adierazitako akzioen kalterik gabe.

BAZKIDETASUNA GALTZEA

35. artikulua.

Hona Bazkidetasuna galtzeko arrazoiak:

a. Hil egitea edo pertsona juridikoaren desegitea

b. Bazkideak berak idatziz baja eskatzea.

c. Kanporatua izatea, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako zigor batekin, honako kasu honetan: Estatutuotan Zuzendaritza Batzordeak baliozkotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

36. artikulua.

Aurreko artikuluen bukaeran aipatutako egitatean bazkideren bat gertatuko balitz, lehendakariak agin diezaioke idazkariari aurretiazko eginbideak gauza ditzala, komeni den informazio lortu ahal izateko. Hura ikusi ondoren, lehendakariak agin dezake jarduketak artxibatzea, 34. artikuluan adierazitako zigor-espedientea edo kanporatze-espedientea hastea.

Azken kasu horretan, idazkariak, egitateak egiaztatu ondoren, idazki bat bidaliko dio interesdunari, egozten zaizkion karguak adierazteko. Hamar eguneko epea izango du egoki irizten diona bere defentsan hari erantzuteko. Epe hori iragan ondoren,



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

betiere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bileran aurkeztuko da gaia, hark komeni dena erabaki dezan, bere osagaien 2/3ko quorumarekin.

37. artikulua.

Kanporatze-akordioa interesdunari jakinaraziko zaio, adieraziz baduela horren kontrako errekurtsua aurkezteko aukera lehenengo egiten den Ohiz kanpoko Batzar Orokorraren aurrean. Batzar hori hurrengo hiru hilabeteetan tokatzen ez bada, ezohiko deialdia egingo da xede bakar horrekin. Bitartean, lehendakariak badu ahalmena erruztatuari bere bazkide-eskubideak kentzeko eta hura Zuzendaritza Batzordekoa balitz, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedientea Batzar Orokorreraino joango balitz, idazkariak haren laburpen bat idatziko du Zuzendaritza Batzordeak eman diezaion Batzar Orokorrari erruztatuak aurkeztutako idazkiaren berri eta gertakariei buruzko informazio egokia, eta Batzarrek dagokion erabakia har dezan.

38. artikulua.

Kanporatze-erabakia, betiere arrazoiak emanez egina, dagokionari jakinaraziko zaio, eta honek, bere eskubideez baliatuz, Auzitegietara jo ahal izango du, bere ustez aipatu erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZietate ONDAREA ETA AURREKONTU-ERREGIMENA

39. artikulua.

Elkarteak ez du ondare sozialik.

40. artikulua.

Elkarteak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- a) Sarrera-kuotak.
- b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak
- b) Elkaratearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

- d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta ekitaldia urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

Elkarteak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

41. artikulua.

Zuzendaritza Batzordearen ekimenez edota bazkideen gehiengo soilak eskatuta Zuzendaritza Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza Batzordeak ezarritako gidalerroei jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

42. artikulua.

Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak hurrena egingo den lehenengo Zuzendaritza Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu egingo du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio berriro azter dezan.

Egitasmoa onartua izango balitz, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Ezohiko Batzar Orokorraren aztergai-zerrendan sartzea erabakiko du edo horretarako propio bilerarako deia egitea.

43. artikulua.

Batzarretarako deiarekin batera Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenon berri Batzar Orokorrari emango zaio, betiere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

Zuzenketak nahiz banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu-aukera izan beharko du.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

44. artikulua

Elkartea honako hauengatik desegingo da:

a. Bazkideen borondatez. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean azaldu beharko da eta bertan daudenetatik gehiengoaren botoak jaso beharko ditu.

b. Kode zibileko 39. artikuluan azaltzen diren arrazoiengatik.

c. Epai judizialak aginduta.

45. artikulua.

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak likidazio Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako bost Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Elkartearen bazkideekiko eta bestelakoekiko zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, desegindako elkarteak irabazi asmorik gabeko ekimenak egiteko erabiliko da, Estatutuen arabera bere funtzioak burutzen dituen lurralde-eremuaren barnean.



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.

Zuzendaritza Batzordea izango da Estatutu hauetan azaltzen diren aginduak interpretatu eta Estatutu horien hutsuneak, Elkarteei buruz indarrean dauden legezko xedapenei jarraikiz, beteko dituen organo eskuduna, betiere hurrengo Batzar Orokorrari, onar dezan, egindako guztiaren berri emanaz.

BIGARRENA.

Estatutu hauek Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak, bakoitzak berari dagokion kompetentzia esparruan, baliozkotasunez hartzen dituzten erabakien bidez aldatuko dira, eta Bosgarren Kapituluari adierazitakoarekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne Araudi bat onartu ahal izango du. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuak aldatuko.

**ETXABE
JAUREGI
JON
JOSEBA -
15933846K**

Lehendakaria
Jon Etxabe

Digitally signed by:
ETXABE JAUREGI JON
JOSEBA - 15933846K
DN: CN = ETXABE
JAUREGI JON JOSEBA -
15933846K C = ES
Date: 2021.12.13 14:08:11
+02'00'

Firmado por ZAPIRAIN
ZABALEGUI, JOSE ANGEL
(AUTENTICACIÓN) el día
13/12/2021 con un certificado
emitido por AC DNIE 004
ZAPIRAIN ZABALEGUI, JOSE

Idazkaria
Jose Angel ZapiRAIN